

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Autokritika eta amorrazioaren dosi melodikoak



**CC627.**  
CC627.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 10'08".  
3 euro.

HONAKO TALDEA bi oñatiarrek eta arrasatear batek osatzen dute eta bi herriak elkartzen dituen errepidearen berbera da izena. Bailara horretan hain presente dagoen punk tradizioetik abiatuta eta ezer asmatu gabe, lortu dute nolabaiteko freskotasuna eta originaltasuna. Horretarako, oso erregistro desberdineko bi ahotsekin melodia lantzen saiatu dira; eta, horrez gain, hitzei garrantzi handia eman diete, gazteei (auto)kritika handia eginez, eta

euskara zein gaztelania erabilita. Nabaria da Ingalaterrako 77ko punka eta NCCren gisako taldeak gustuko dituztela, baita Oi!-a ere, Fiachrasen tankerako ildo malenkoniatsua baztertu gabe. Lan honetako lau kantetatik dagoeneko *Mundu zoragarria* hit! oso berezia da, eta ziur jada prestatzen dabilzan lan berrian izango direla sorpresa gehiago.

[www.myspace.com/cc-627](http://www.myspace.com/cc-627)

### CC627

## «Punka gezur handi bihurtu da; galdu egin du esentzia, esanahia»

Azpiegitura erraldoien sasoian, bigarren mailako errepideak dira gelditzen zaigun esparru natural bakarra?

Bai. Azpiegitura erraldoiek infernuko bidera eramango gaituzte. Lotsagarriak dira aurrerapenaren izenean egin nahi dituzten proiektu izugarri guztiak. Bigarren mailako errepideetan oraindik autostop egiten duen jendea ikus daiteke, hori zoragarria da.

“Ignorantziaren yonkeeak, gazte jubilatua...”. Anger taldeak *Biluztu* kaleratu zuenetik ez dut ia benetako disko kritikorik entzun. Zorionak!

Kritika beharrezkoa da. Badirudi gazteei kosta egiten zaiela sare soziale-tatik desengantxatu eta kaleko giroan murgiltzea. Autokritika ere beharrezkoa da, guk ere sistema kapitalista barruan dugulako.

Musikak dagoeneko ezer gutxi alda dezake eta are gutxiago probokatu. Hitzekin bada aukerarik?

Hitzek izugarriko garrantzia dute. Guk ezingo genuke musika instrumentalik egin. Gure armarik onena ironia da. Gizartea hain da ergela, ironia erabili eta berehala haserretzen dela; hor dago hitzen boterea.

Euskal Herriko punk eta Oi!-ak alda dezake zerbait?

Norberak bere proiektuetan bihotzez sinesten badu gauzak alda daitezke. Punkaren edo Oi-aren arazorik handiena da fotokopia gehiegi daudela, norberaren nortasuna atera beharrean. Punka gezur handi bihurtu da. Ez dakigu zer den punka, baina bai zer ez den: asteburuetan egundoko kalimotxoak edan, andre zaharrak iraindu eta gazteteak birrintzea. Horrela jokatzeko duen jendearen ondorioz, punkak galdu egin du bere esanahia, zeukan esentzia.

Fiachras eta Bizardunak pareko folka da salbazioa?

Gustuko dugu baina ez dugu salbaziotzat ikusten. Rock-and-rollaren salbazioa berriz hutsetik hastea izango litzateke, mito eta tontokeria larre-gi baitaude. Adibidez, BBK Live-n bankeroek rock-and-rola subentziazatzen dute. ■

